



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak Fritz Langen *Los nibelungos* – *Sigfridoren heriotza* filma proiektatuko du pantaila handian, eta BOSek musika zuzenean interpretatuko du

- Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS), Nacho de Pazek zuzenduta, Gottfried Huppertz autorearen jatorrizko musika interpretatuko du, Alemaniako Cinematex-ean gorde den partitura berreskuratu izanari esker.
- Ikuskizuna larunbatean, ekainaren 19an izango da (18:00etan), eta Arriaga Antzokiak Guggenheim Bilbao Museoren *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketari lotuta prestatu duen programazio bereziaren baitan dago.

Bilbo, 2021eko ekainaren 17a.- Arriaga Antzokiak larunbat honetan, ekainaren 19an, itxiko du 2020-2021 denboraldia, 18:00etatik aurrera, eta zinema eta lehen mailako musika uztartuz egingo du.

Fritz Langek 1924an ekin zion bere zinema-proiekturik handienetako bati: *Die Nibelungen* (Nibelungoak / Los nibelungos) lanari. «Nibelungoen kanta» poema epikoa du inspirazio-iturri, eta bi filmez osatuta dago: *Siegfrieds Tod* (Sigfridoren heriotza / La muerte de Sigfrido) eta *Kriemhilds Rache* (Krimildaren mendekua / La venganza de Krimilda). Arriaga Antzokiak eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak eskainiko duten kontzertu berezian, **BOSEk**, **Nacho de Paz**en zuzendaritzapean, *Siegfrieds Tod* lehenengo filmeko musika interpretatuko du, filma pantaila handian ematen den bitartean.

Bizitza bera baino handiagoa, Europa iparraldeko Erdi Aroko kondairetan inspiratua eta espresionismo alemaniarraren iruditeria deigarriarekin aberastua, *Sigfridoren Heriotza* ikuskizun itzela da. Sigfridoren kontakizuna aurkezteko, Fritz Langek ahalik eta gehien aprobetxatu zituen zinemako berrikuntzak eta Decla-Bioscop ekoiztetxeko artisten ikuspegi sortzailea. Zuhaitz izugarriak, altxorrez betetako haitzuloak eta hirurogeita hamar hankako dragoia eskala naturalean eraiki zituzten estudioko lantegietan. Efektu berezietako teknikariek formatu eta trikimailu optiko berriak asmatu zituzten ekintzaren perspektiba estudioa bera baino askoz handiagoa zen uneetarako. Eraitza hunkigarria da, batetik, XIII. mendeko intrigazko kondaira kontatzen digulako, eta, bestetik, 700 urte beranduago filma egiteko erabili ziren baliabide tekniko magikoengatik.

Alemaniako zinema mutuaren goreneko lanetako bat da, eta **Gottfried Huppertz** konpositoreak sortu zuen soinu-banda. Huppertzzen musika duela gutxi entzun dugu Arriagan, Metropolis filmaren emanaldiko kontzertuan, eta haren konposizioak indarra ematen die eszena eta pertsonaiei. Estreinaldiaren mendeurrena betetzeko hiru urte besterik falta ez direnean, zaharberitutako filmari eta Alemaniako Cinematexen gordetako partitura berreskuratzeari esker, zinemako harribitxia Arriaga antzokiko pantaila handian ikusiko dugu zuzeneko orkestra-soinuarekin.

Urte eroak, 1920ko hamarkada

Arriaga Antzokiak prestatu dituen zazpi ikuskizunetatik zazpigarrena da hau, une honetan Guggenheim Bilbao Museoan ikusgai dagoen *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketarekiko paraleloan eta haren osagarri gisa egindakoetatik azkena alegia.

Komeni da gogoraraztea Guggenheim Bilbao Museoaren eta Arriaga Antzokiaren arteko elkarlan hau Calixto Bieito Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoaren inplikazioaren bidez sortu zela, berak egin baitu *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketaren diseinua. Elkarlan horren helburua da, alde batetik, erakusketaren eszenografia aberastea, Bieitoren ukitu pertsonala emanez, eta, bestetik, bi erakundeen arteko elkarrizketa Arriaga Antzokira hedatzea. Bertan, ikuspegia zabaltzen duten eta erakusketaren osagarri diren zazpi ikuskizun eskaini dira.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 13 eta 27 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefono zenbakian edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus